



Zehapen-ahala baliatzeko prozedura laburtuaren Ordenantza

Ordenantza honen xedea da udal-ordenantzetan arintzat tipifikatutako arau-haustek egiteagatik Eibarko Udalak duen zehatzeko ahala arautzea, eta, horretarako, berariazko prozedura laburtu bat arautzea.

Prozedura hau ezartzearen helburua garatu beharreko kontrol-lana erraztea da, zehazki maiz errepikatzen diren arau-hauste jakin batzuetan.

Helburua da ustezko arau-hauste arinengatik hasitako zehapen-prozedura administratiboa gehiegi ez luzatzea, arau-hauste astunengatik eta oso astunengatik hasitako prozeduretan berme prozesalak eskaintzera bideratuta dagoen prozedura bati egokitu behar zaiolako. Administrazio-jarduera sinplifikatzeko bitartekoak ezarri nahi dira, eta arau-hauste arinak egitea eragotzi, horiek baitira ohikoak.

Prozedura berri honek, era berean, interesdunaren eskubideak bermatzen ditu, baina aukera ematen dio prozedura azkar ixteko eta diruzko zehapenean hobaria izateko, beste administrazio-arlo batzuetan egiten den bezala. Hala ere, interesduna ez badago ados zehapen-proposamenarekin, arlo horretan aplikatu beharreko legeetan araututako prozedura hastera bultzatu ahal izango du.

Ordenanza reguladora del procedimiento abreviado para el ejercicio de la potestad sancionadora

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el ejercicio de la potestad sancionadora del Ayuntamiento de Eibar por la comisión de aquellas infracciones tipificadas como leves por las ordenanzas municipales, regulando para ello un procedimiento abreviado específico.

El objetivo de la implantación de este procedimiento es facilitar la labor de control a desarrollar, concretamente en determinadas infracciones que se repiten con asiduidad.

Se persigue que el procedimiento administrativo sancionador iniciado por la presunta comisión de infracciones leves no se dilate en exceso por tener que ajustarse a un procedimiento que está más enfocado a ofrecer garantías procesales en procedimientos iniciados por infracciones graves y muy graves. Se pretende implantar medios que simplifiquen la actuación administrativa y disuadir la comisión de infracciones de carácter leve, que son las más habituales.

Este nuevo procedimiento garantiza igualmente los derechos de la persona interesada, pero ofrece a la misma la posibilidad de cerrar el procedimiento de una forma rápida y beneficiarse de la posibilidad de una bonificación en la sanción pecuniaria, del mismo modo que se realiza en otros órdenes administrativos. No obstante, si la persona interesada muestra su disconformidad con la propuesta de sanción, podrá impulsar



Azaldutakoaren arabera, ustez arau-hauste arinak egiteagatik Eibarko Udalean hasten diren zehapen-prozedurak artikuluko hauetan xedatutakoaren arabera arautu ahal izango dira.

### **1. Artikulua.- Ezarpen-eremua**

Zigortzeko ahalmena erabiltzean, ordenantza honetan araututako prozedura laburtua aplikatu ahal izango da, bai indarrean dauden udal ordenantzetan bai beste erakunde batzuetako araudietan —udalei zehatzeko ahala ematen dietenak— arau-hauste arin modura tipifikatutako gertaeretan.

### **2. Artikulua.- Prozeduraren hasiera**

Arau-hauste arinen zigor-prozedura bi modutara has daiteke: a) ofizioz, 1. artikuluan deskribatutako arau-hausteak izan daitezkeen gertaeren berri izan duen agintaritza eskudunak hala erabakita; b) zaintzaz eta segurtasunaz arduratzen diren udaltzainek egindako salaketaren bidez.

### **3. Artikulua.- Kautelazko neurriak**

Udaltzainek kendu edo atzeman ahal izango dituzte, kautelaz, arau-hauste administratiboan xede diren elementuak, bai eta bestelako materialak edo erabilitako baliabideak ere.

el inicio del procedimiento regulado en las leyes de aplicación en la materia. Conforme a lo expuesto, los procedimientos sancionadores que se inicien en el Ayuntamiento de Eibar por la presunta comisión de infracciones leves podrán regularse conforme a lo dispuesto en este articulado.

### **Artículo 1. Ámbito de aplicación**

El procedimiento abreviado regulado en la presente ordenanza podrá aplicarse en el ejercicio de la potestad sancionadora por hechos constitutivos de infracciones tipificadas como leves en las ordenanzas municipales en vigor, y en aquella normativa emanada por otras instituciones que otorgue a los ayuntamientos competencia para sancionar.

### **Artículo 2. Incoación del procedimiento**

El procedimiento sancionador por infracciones leves se incoará de oficio por la autoridad competente que tenga noticia de los hechos que puedan constituir las infracciones descritas en el artículo 1, o mediante denuncia formulada por los agentes de la autoridad encargados de la vigilancia y seguridad.

### **Artículo 3. Medidas Cautelares**

Los agentes de la autoridad podrán retirar e intervenir cautelarmente los elementos objeto de las infracciones administrativas, así otros materiales o los medios empleados.



Objektu horiei gai espezifikoak arautzen duen arau juridiko bakoitzean aurreikusitako erabilera emango zaie.

#### **4. Artikulua.- Salaketen izaera**

Udaltzainek salatu egin beharko dituzte euren zaintza-, kontrol- eta segurtasun-funtzioen jardunean ikusten dituzten arau-haustekak.

Agintaritza izaera aitortuta duten funtzionarioek ikusitako gertakariak jasotzen dituzten dokumentu publikoek (legezko betebeharrak beteta formalizatutakoak) proba-balioa izango dute salatutako gertakarietan, hartara eragotzi gabe funtzionario horiek proba-elementu guztiak aurkezteko duten betebeharra.

#### **5. Artikulua.- Salaketen edukia**

Salaketetan honako hauek jasoko dira: salatuaren nortasuna eta gertaeraren zirkunstantzien kontakizuna, lekua, data eta ordua adierazita. Salatzailea udaltzain bat bada, bere identifikazio-zenbakia ere adieraziko da.

Halaber, honako hauek ere jasoko dira: ustez hautsitako arauaren edo udal ordenantzaren agindua eta zenbakia; arau-haustea tipifikatzen duen arauan aurreikusitako zigorraren zenbatekoa; prozeduraren instrukzioaren arduraren organoa; eta haren ezespenez araubidea. Zigortzeko organo eskuduna zein den eta eskumen hori zein arauk ematen dion ere adieraziko da.

A dichos objetos se les dará el destino previsto en la respectiva norma jurídica que regule la materia específica.

#### **Artículo 4. Carácter de las denuncias**

Los agentes de la autoridad deberán denunciar las infracciones que observen cuando ejerzan sus funciones de vigilancia, control y seguridad.

Los documentos públicos en los que se hagan constar los hechos constatados por funcionarios a los que se reconoce condición de autoridad, que se formalicen observando los requisitos legales pertinentes, tendrán valor probatorio respecto de los hechos denunciados, sin perjuicio del deber que dichos funcionarios tienen de aportar todos los elementos probatorios que sea posible.

#### **Artículo 5. Contenido de las denuncias**

En las denuncias deberá constar la identidad de la persona denunciada, una relación circunstanciada del hecho, con expresión del lugar, fecha y hora. Cuando el denunciante sea un agente de la autoridad, reflejará su número de identificación.

Asimismo se hará constar el precepto y número de la norma u ordenanza municipal presuntamente infringida, el importe de la eventual sanción previsto en la norma que tipifique la infracción, el órgano encargado de la instrucción del procedimiento y su régimen de recusación. Asimismo se indicará el órgano competente para sancionar y norma que le atribuya tal competencia.



## 6. Artikulua.- Salaketen baldintzak

Salaketa-txostenaren bina ale egingo dira. Bat salatuari entregatuko zaio, ahal izanez gero, eta bigarrena instrukzioko bulego administratibo eskudunari igorriko zaio. Salatzaileak eta salatuak sinatuko dituzte txostenak. Azken horrek sinatzeak ez du esan nahi salaketa eragin duten gertaerekin ados dagoenik, baizik eta bere alea jaso duela. Baldin eta salatuak uko egiten badio sinatzeari edo ez badaki sinatzen, salatzaileak zirkunstantzia hori jasoko du eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, 42. artikuluan xedatutakoa beteka da.

Salaketa-txostenean salatuari ohartaraziko zaio hamabost eguneko epea duela egoki iruditzen zaizkion alegazioak, dokumentuak edo informazioak aurkezteko eta, hala bada, frogaldia proposatu eta egiteko. Berariaz adieraziko zaio, bestalde, epe horretan prozeduraren hasieraren edukiari buruzko alegaziorik egiten ez badu, ebazpen proposamentzat hartu ahalko dela hasiera hori eta berehala organo eskudunari bidaliko zaiola, prozedura ebazteko.

Halaber, salatuari adieraziko zaio aukera duela bere erantzukizuna aitortzeko eta isuna ordaintzeko (9.b) artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

## Artículo 6. Requisitos de las denuncias

Los boletines de denuncia se extenderán por duplicado. Uno de ellos se entregará al denunciado/a si fuera posible y el segundo se remitirá a la dependencia administrativa competente para la instrucción. Los boletines serán firmados por la persona denunciante y la denunciada, sin que la firma de este último implique conformidad con los hechos que motivan la denuncia, sino únicamente con la recepción del ejemplar a él destinado. En el caso de que el denunciado se negase a firmar o no supiere hacerlo, el denunciante así lo hará constar y se estará a lo dispuesto por el artículo 42 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En el boletín de denuncia se advertirá de que dispone de un plazo de quince días para aportar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estime convenientes y, en su caso, proponer y practicar la prueba, con la expresa mención de que, de no efectuar alegaciones sobre el contenido de la iniciación del procedimiento en el citado plazo, esta iniciación podrá ser considerada propuesta de resolución, que se cursará inmediatamente al órgano competente para resolver el procedimiento.

Asimismo se informará al denunciado de la posibilidad de reconocer su responsabilidad y de pagar la sanción



Organo instruktoreak jarraibideak edo zirkularrak eman ahalko ditu, bai salaketak egiteko formularioei buruz, bai organo instruktoreak horien tramitazioa onar dezan formularioek eduki beharko dituzten gutxieneko baldintzei buruz.

## **7. Artikulua.- Salaketen tramitazioa**

Udaltzainak jarritako salaketa instrukzio-bulegoan jaso ondoren, gertakariak sailkatu eta isunaren graduazioa egingo da, edo udaltzain salatzaileak salaketan jarritako sailkapena eta isuna egiaztatuko dira. Ondoren tramitatu egingo da, edo, bestela, organo instruktoreak agintaritza eskudunari proposatuko dio ebazpen batean aitor dezala arau-hausterik ez dagoela (baldin eta salatutako gertakariak ez badira arau-haustea) edo isunik ezin dela jarri (baldin eta egilea ezin bada identifikatu).

Instruktoreak egindako sailkapena eta graduazioa bat ez badatoz udaltzainak bere salaketan adierazitakoekin, bigarren aldiz jakinaraziko zaio ustezko arau-hausleari prozeduraren hasiera. Eta 15 eguneko epea emango zaio ordenantza honetako 5. artikuluko bigarren paragrafoan adierazitakoa betetzeko.

## **8. Artikulua.- Salaketen jakinarazpena**

Salatuari unean bertan emango zaio salaketaren berri. Ordenantzako 5. artikuluan adierazitako datu guztiak

con los efectos previstos en el artículo 9.b).

El órgano instructor podrá dictar instrucciones o circulares sobre los formularios en los que se practiquen las denuncias y sobre los requisitos mínimos que deban contener para su admisión a trámite por el órgano instructor.

## **Artículo 7. Tramitación de denuncias**

Recibida en la dependencia instructora la denuncia formulada, se procederá a la calificación de los hechos y graduación de la multa o a la verificación de la calificación y multa consignadas en la misma, impulsándose la ulterior tramitación o proponiéndose por el órgano instructor a la autoridad competente la correspondiente resolución que declare la inexistencia de infracción en los casos de que los hechos denunciados no fuesen constitutivos de la misma, o la improcedencia de imponer sanción, en los supuestos en que no pueda identificarse a su autor. Si la calificación y graduación apreciadas por el instructor/a fuesen distintas a las señaladas por el agente en su denuncia, se notificará nuevamente la incoación del procedimiento al presunto infractor, otorgándole el plazo de 15 días a los efectos previstos por el segundo párrafo del artículo 5 de esta Ordenanza.

## **Artículo 8. Notificación de denuncias**

Las denuncias habrán de notificarse en el acto a los denunciados/as, haciendo constar en las mismas los



sartuko dira salaketan, eta adieraziko zaio datu horiekin irekita gelditzen dela espediente eta, ondorioz, hamabost eguneko epea edukiko duela bere defentsan egoki iruditzen zaizkion agiri eta informazioak aurkezteko, eta, hala bada, frogaldia proposatu eta egiteko.

Hala eta guztiz ere, geroago jakinarazitako salaketak edo akordioak ere baliozkoak izango dira, ustezko arau-hauslea ez dagoenean edo gertaera salatzeke unean ezin denean egon, edo momentuko zirkunstantziek jakinarazpena unean bertan egitea eragozten dutenean.

## **9. Artikulua.- Prozeduraren instrukzioa**

a) Udaltzain salatzaileak ez badio jakinarazpena egiten ustezko arau-hausleari, instrukzioko organo eskudunak (zigor-organo eskudunak izendatutakoak) prozeduraren hasieraren berri eman beharko du, eta hamabost eguneko epea emango zaio ustezko arau-hausleari bere defentsan egoki iruditzen zaizkion agiri eta informazioak aurkezteko eta, hala bada, epe horretan frogaldia proposatu eta egiteko.

b) Salatuak bere erantzukizuna aitortu ahalko du, salaketaren jakinarazpena edo prozeduraren hasiera egin eta hurrengo hamabost egun naturalen buruan. Horretarako, isuna bere borondatez ordainduko du, ohiko ordainketak egiteko Udalak jarritako bitartekoen bidez. Halakoetan

datos a que hace referencia el artículo 5 de la Ordenanza, así como que con ellas quedan incoados los correspondientes expedientes y, en su consecuencia, que disponen de un plazo de quince días para que aleguen y aporten los documentos o informaciones que consideren conveniente a su defensa y, en su caso, la proposición y práctica de la prueba.

No obstante, serán válidas las denuncias o acuerdos de incoación notificados con posterioridad en aquellas infracciones en que el presunto infractor/a no esté o no pueda estar presente en el momento de denunciarse los hechos, o cuando las circunstancias concurrentes dificulten la práctica de la notificación en el momento.

## **Artículo 9. Instrucción del procedimiento**

a) Si el agente denunciante no hubiera efectuado la notificación al presunto infractor, el órgano competente para la instrucción, designado por el órgano competente para sancionar, deberá notificar la incoación del procedimiento, concediéndole un plazo de quince días para que alegue y aporte los documentos o informaciones que considere convenientes a su defensa y, en su caso, la proposición y práctica de la prueba en dicho plazo.

b) El denunciado, dentro de los 15 días hábiles siguientes a la notificación de la denuncia o incoación del procedimiento, podrá reconocer su responsabilidad realizando el pago voluntario de la multa a través de los medios de pago habituales establecidos por el Ayuntamiento, en



prozedura arau-hauslea bukatutzat emango da, ondorio hauekin:

- Zigor ekonomikoa % 50ean murriztuko da.
- Uko egingo zaio alegazioak aurkezteko aukerari. Alegazioak egiten badira, ez aurkeztutzat hartuko dira.
- Ordainketa egiten den egunean prozedura amaitu egingo da, berariazko ebazpena egin beharrik gabe.
- Bide administratiboa bukatu egingo da. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioan bakarrik errekurritu ahalko da.
- Ordainketa egin eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea
- Zigorra irmoa izango da bide administratiboan, ordainketa egiten den unetik, eta hurrengo egunetik izango ditu ondorio guztiak.

c) Ordainketa osorik egiten ez bada eta, beraz, salaketan adierazitako zenbatekoaren % 50era iristen ez bada, ez da aurrekoa aplikatuko. Kontura egindako diru-sarreratzat hartuko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du. Halakoetan ebazpenak adierazten badu erantzukizunik ez dagoela, aurretik sartutako diru-kopurua itzuli egingo da.

d) Salaketaren berri eman eta hurrengo egunetik hasita 15 eguneko epea pasatu bada, eta artikuluko honetako b) atalean aurreikusitako epean isuna ordaindu ez bada, aurkeztutako alegazioak (halakorik balego) eta egindako frogak (halakorik egin balitz) ikusita, instrukzioko organo eskudunak

cuyo caso se tendrá por concluido el procedimiento sancionador con las siguientes consecuencias:

- La reducción del 50% del importe de la sanción económica.
- La renuncia a formular alegaciones. En el caso de que fuesen formuladas se tendrán por no presentadas.
- La terminación del procedimiento, sin necesidad de dictar resolución expresa, el día en que se realice el pago.
- El agotamiento de la vía administrativa siendo recurrible únicamente ante el orden jurisdiccional contencioso-administrativo.
- El plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo se iniciará el día siguiente a aquél en que tenga lugar el pago.
- La firmeza de la sanción en la vía administrativa desde el momento del pago, produciendo plenos efectos desde el día siguiente.

c) Si el pago no fuese íntegro y, por tanto, no comprendiese el 50% del importe señalado en la denuncia, no será de aplicación lo anterior, teniéndose como un ingreso a cuenta, siguiéndose el procedimiento. En este caso, si la resolución estimase la inexistencia de responsabilidad, se procederá a la devolución de la cantidad parcialmente ingresada.

d) Transcurrido el plazo de 15 días desde el siguiente a la notificación de la denuncia y siempre que no se hubiese abonado la sanción en el plazo previsto en el apartado b) de este artículo, a la vista de las alegaciones que en su caso se hubieran presentado y de las pruebas



ebazpen-proposamena egingo du, hurrengo artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz. Edo ikusten badu gertakariok arau-hauste astunak edo oso astunak izan daitezkeela, erabakia hartuko du tramitazioak Prozedura orokorraren arabera jarrai dezan, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 1/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera. Kasu horretan interesdunei horren berri emango zaie, eta bost eguneko epea emango zaie frogaldia proposa dezaten (egoki iruditzen bazaie) eta aipatutako legean aurreikusitako prozeduraren arabera egin dadin frogaldi hori.

e) Epe barruan alegazioak aurkezten badira, horiek aztertu ondoren eta proposatutako frogaldiak egin ondoren (halakorik balego), ebazpen-proposamena egingo zaio zigortzeko organo eskudunari, ebazpena egin dezan hamar eguneko epean.

f) Salaketak zigor-prozeduraren ebazpen-proposamenaren ondorioak izango ditu, baldin eta salatuak ez badu alegaziorik aurkezten emandako epean, edo isunaren zenbatekoa ordaintzen ez badu salaketaren edo prozeduraren hasieraren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita hamabost egun naturaleko epean.

## **10. Artikulua.- Ebazpena**

a) Organo eskudunak ebazpen arrazoitua egingo du, interesdunek planteatutako kontu guztiak eta

que en su caso se hubieran practicado, el órgano competente para la instrucción formulará propuesta de resolución de conformidad con lo dispuesto en el artículo siguiente o, si aprecia que los hechos pueden ser constitutivos de infracción grave o muy grave, acordará que continúe tramitándose el procedimiento general previsto en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas notificándolo a los interesados para que, en el plazo de cinco días, propongan prueba si lo estiman conveniente y se sustancie conforme al procedimiento previsto en la mencionada Ley.

e) De presentarse alegaciones en plazo, una vez examinadas las mismas y practicadas en su caso las pruebas propuestas, se formulará propuesta de resolución al órgano competente para sancionar quien dictará resolución en el plazo de diez días.

f) Si el denunciado no formula alegaciones en el plazo concedido ni abona el importe de la multa en el plazo de quince días naturales siguientes al de la notificación de la denuncia o de la incoación del procedimiento, la denuncia surtirá el efecto de propuesta de resolución del procedimiento sancionador.

## **Artículo 10. Resolución**

a) El órgano competente dictará resolución que será motivada y decidirá todas las cuestiones



prozeduran bertan sortutakoak erabakiko dituena.

b) Ebazpenean ez dira onartuko prozeduraren instrukzio-fasean zehaztu gabeko gertakariak.

c) Ebazpena interesdunei jakinarazi behar zaie. Prozedura hasi zenetik sei hilabete pasatu badira eta epe horretan ebazpenik eman ez bada, prozedura iraungi egingo da, lege-mailako arau batek beste iraungitze-data bat jartzen ez badu behintzat. Dena den, epeak kontatzean ez dira zenbatuko balizko etenak (interesdunei leporatzekoak) edo prozeduraren etenaldiak (hala aitortutakoak).

## **11. Artikulua. Zigorra zehaztea**

a) Zenbateko zehaztugabearen kasuetan, Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalaria buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan, zigorraren zenbatekoa zehaztean.

b) Hiru zati berdinetan zatituko da zigorraren zenbatekoa zehazteko aurreikusitako tartea. Zirkunstantzia astungarri edo aringarrik ez badago, erdi-mailako zenbateko minimoaren isuna jarriko da.

c) Zirkunstantzia aringarriak edo astungarriak daudenean, maila minimo edo maximoari dagokion tartean jarriko da isuna, hurrenez hurren.

planteadas por los interesados y aquellas otras derivadas del procedimiento.

b) En la resolución no se podrán aceptar hechos distintos de los determinados en la fase de instrucción del procedimiento.

c) La resolución habrá de ser notificada a los interesados. Si no hubiese recaído resolución transcurridos seis meses desde la iniciación se producirá la caducidad del procedimiento salvo que una norma con rango de Ley establezca un plazo de caducidad distinto. A efectos de la declaración de caducidad no computarán las posibles interrupciones por causas imputables a los interesados o por la suspensión del procedimiento así declarada.

## **Artículo 11. Determinación de la sanción**

a) Para determinar el importe de la sanción en los supuestos de cuantía indeterminada, se tendrán en cuenta los criterios establecidos en Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.

b) Se dividirá en tres tramos iguales el margen previsto para la determinación de la cuantía de la sanción. En ausencia de concurrencia de circunstancias agravantes o atenuantes, se impondrá la sanción en la cuantía mínima del grado medio.

c) En el caso de que concurra alguna circunstancia atenuante o agravante, la sanción se impondrá dentro del tramo que corresponda a su grado mínimo o máximo, respectivamente.



d) Ordenantza batzuetan, zenbateko zehatzak aurreikusita daude arau-hauste jakin batzuetarako. Kasu horietan ordenantzan jarritakoa beteko da, zirkunstantzia aringarriak aplikatzearen emaitzari kalterik egin gabe.

e) Arau-hauste zehatz batzuetarako berariazko kopurua zehaztu ahal izango da Alkatetzako Dekretu bitartez.

## **12. Artikulua.- Zigortzeko prozedura laburtuaren errekurtsoak**

a) Zigor-ebazpenak administrazio-bidea bukatzen du, eta horren kontra dagozkion egintzak erabili ahalko dituzte interesdunek jurisdikzio eskudunaren aurrean. Hala eta guztiz ere, alde zuzenetik berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko da, aukerakoa, baldin eta zigor ekonomikoaren zenbatekoaren murrizketaren onuradun izan ez bada.

b) Aukerako berraztertze-errekurtsoa jartzeak ez du inpugnatutako egintza betetzea etengo.

c) Errekurtsoaren ebazpenean ez dira kontuan hartuko jatorrizko prozeduran errekurtsogileak aurkeztutako gertakariak, agiriak eta alegazioak.

d) Artikulu honetan araututako berraztertze-errekurtsoa ezetsi egin dela ulertuko da, hilabeteko epean berariazko ebazpenik ematen ez bada. Administrazioarekiko auzi-bidea, ordea, irekita egongo da.

### **Xedapen gehigarria**

d) En las ordenanzas que prevean cuantías ya previstas para determinadas infracciones, se estará a lo dispuesto en ellas, sin perjuicio del resultado de la aplicación de circunstancias atenuantes.

e) Podrán establecerse cuantías determinadas para infracciones específicas mediante Decreto de Alcaldía.

## **Artículo 12. Recursos en el procedimiento sancionador abreviado**

a) Contra la resolución sancionadora, que pone fin a la vía administrativa, los interesados podrán ejercer las acciones que procedan ante la jurisdicción competente, pudiendo no obstante interponer con carácter previo y potestativo recurso de reposición siempre que no se hubieran beneficiado de la reducción en el importe de la sanción económica.

b) La interposición del recurso potestativo de reposición no suspenderá la ejecución del acto impugnado.

c) No se tendrán en cuenta en la resolución del recurso hechos, documentos y alegaciones del recurrente que pudieron haber sido aportados en el procedimiento originario.

d) El recurso de reposición regulado en este artículo se entenderá desestimado si no recae resolución expresa en el plazo de un mes, quedando expedita la vía contencioso administrativa.

### **Disposición Adicional**



Udal organoen ahalmena izango da ordenantza honetan jarritako prozedura laburtua aukeratzea, udal ordenatzetan edo beste araudi aplikagarri batean jarritako prozeduraren osagarri modura. Eta hori guztia espediente bat ohiko zigor-prozeduraren bidez tramitatzeko aukerari kalterik egin gabe, bereziki prozedura laburtu hau aplikatzea zaila edo ezinezkoa den kasuetan.

### **Xedapen iragankorra**

Indarrean sartu ondoren egindako arau-hausteei aplikatuko zaie Ordenantza hau. Aurreko araudi bat betez hasitako prozedurak araudi horren arabera arautuko dira, ebatzi arte.

### **Azken xedapena**

Ordenantza hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik kontatzen hasi eta hamabost eguneko epean, eta indarrean jarraituko du hura aldatzea edo baliogabetzea erabakitzen den arte.

Será potestad de los órganos municipales optar por el procedimiento abreviado establecido en la presente ordenanza, como procedimiento complementario a los establecidos en las ordenanzas municipales o en otra normativa de aplicación. Todo ello sin perjuicio de la posibilidad de optar por tramitar un expediente por el procedimiento sancionador ordinario, especialmente en aquellos casos en los que sea de difícil o imposible aplicación este procedimiento abreviado.

### **Disposición Transitoria**

La presente Ordenanza será de aplicación a las infracciones que se cometan tras su entrada en vigor. Los procedimientos ya iniciados en virtud de una normativa anterior se regirán, hasta su resolución, por dicha normativa.

### **Disposición Final**

La presente Ordenanza entrará en vigor, transcurridos quince días desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, continuando su vigencia hasta que se acuerde su modificación o derogación.